

Ia ehuneko 3 puntu igo da emakumeen agerpena Ingeniaritzako ikasketetan Euskal AEn azken 10 urteetan

12.103 emakume ari dira I+Gn Euskal AEn; hau da, arlo horretan lan egiten duten pertsona guztien % 38

Eustatek **Euskadin emakumeak Zientzian duen presentzia** aztertzeko egindako datuen arabera, bai unibertsitate-eremuan, bai I+Gn, gaur, otsailak 11, **Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Eguna** ospatze aldera, emakumeak **Ingeniaritzaren adarrean** duen presentzia (ikasketa maskulinizatuenetako bat) pixka bat handitu da azken hamar urteetan. Zehazki, emakumeen presentzia ehuneko 2,7 puntu hazi da Ingeniaritzan, 2010/2011 ikasturtean % 25 izatetik 2019/2020 ikasturtean % 27,7 izatera igaro baita.

Eremu horren barruan, nahiz eta nagusitasuna maskulinoa izan eta bilakaera desberdina izan den, emakumeen laurdena baino gutxiago duten ia karrera guztiak adar horretakoak baitira, emakumeak nagusi diren espezialitate batzuk nabarmentzen dira, hala nola Arkitekturaren Oinarriak (emakumeen % 57ko presentziarekin), Industria Ingeniaritza eta Produktu Garapena (% 53,1ekoarekin) edo Industria Ingeniaritza Kimikoa (% 58,3koarekin).

Zientzien adarrean parekotasun handiagoa dachusagu espezialitate batzuetan. Esate baterako, Matematikan, emakumeen ehunekoa % 48ra iristen da, eta Kimikan, berriz, % 54,2ra. Hala ere, Fisikako ikasketak gizonetzkoen aukera dira nagusi oraindik ere, eta emakumeen presentzia % 27,9koa da.

Osasun-zientzietan, gradu guztiak oso feminizaturik daude, eta horietako batzuetan gora egiten ari da. Emakumeen ehunekorik handiena Erizaintzan dugu, % 84,1ekin, 2010/2011 ikasturtearen antzera. Medikuntzan, Osasun-zientzietako beste adar oso berezi eta eskatu batean, ehunekoa % 73,4koa izan da 2019/2020an, 2010/2011 ikasturteko 67,6 baino askozaz handiagoa. Odontologiak Medikuntzaren antzeko datu eta igoerak ditu, % 67,6tik % 74,2ra igoz.

Oro har, emakumeen agerpena nabarmena da graduiko ikasketetan, % 55, gizonena baino ehuneko 10 puntu handiagoa. Eta **unibertsitate-eremuan**, graduez gain, unibertsitatean egiten diren era guztietako ikasketak barne hartzen dituen (masterrak, doktoregoak, etab.), emakumeen presentzia % 54koa da, eta gehienek (% 75,80k) osasunaren eta gizarte-zerbitzuen arloko ikasketak egiten dituzte, eta **soilik % 17,40k egiten dituzte informazioaren eta komunikazioen teknologietan (IKT).**

I+Gn lan egiten duten pertsona guztien % 38 emakumeak ziren 2020an; 2003an, % 31,3 ziren, eta 1993an, % 22.3

Euskal AEn, guztira, 31.922 pertsona ari dira I+Gn (2020); horietatik 12.103 emakumeak dira; hau da, pertsona guztien % 38. Eremu horretan enplegatutako pertsona guztietatik, **Administrazio Publikoan** emakumeak % 61,51 dira; ondoren, **Irakaskuntzaren** sektorea dago, non ia ez baitago alderik gizonen eta emakumeen artean (azken horiek % 49,9 dira), eta, azkenik, **Enpresen** sektorea, zeinetan % 29,5 baino ez baitira.

Diziplina zientifikoaren arabera, Ingeniaritza da jarduera zeinetan I+Gn lan egiten duten pertsonen kopuru handiena dagoen (20.219 pertsona), guztizkoaren % 63,3; emakumeek ere gehiengoa dute hor, I+Gn lan egiten duten emakumeen % 47,1 diziplina horretan ari baitira, baina gizonen proportzioa (% 73,3) baino askozaz txikiagoa da. Halaz ere, I+Gn aritzen diren emakume guztietatik, % 23,8 **Medikuntza Zientzietan** ari dira, gizonen % 9,7ren aldean, eta % 15,5, berriz, **Gizarte Zientzietan**, I+Gn lanean ari diren gizonen % 7,8ren aldean.

Emakumeek I+Gn duten presentziaren bilakaerari dagokionez, azken urteotan nabarmen egin du gora. Horrela, 1993an % 22,3 ziren, 2003an % 31,3 eta, pixkanaka, hazten joan da, gaur egun % 37,7ra iritsi arte. **I+Gn dauden emakumeen kopurua 1993ko 1.928tik 2020ko 12.103ra igo da.** Ingeniaritza izan da joera-aldaketa hori gehien bultzatu duen diziplina zientifikoa, I+Gn dauden emakumeen ehunekoa bikoiztuz, % 14,1etik % 28,2ra.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62

EMAKUME ETA NESKA ZIENTZIALARIEN NAZIOARTEKO EGUNA 2022/02/11



12.103

Emakume Euskadin
I+G arloan

I+G Bioteknologian

2007 → 2020

661
Emakume
enplegatu

1.332
Emakume
enplegatu

+%101

Emakumeen agerpena

Hezkuntza-mailaren arabera

%54 %49 %35



Euskadi

%38

Emakumeak



Emakumeen agerpena

Sektoreka

%61,51

Administrazioa

%49,74

Goi-mailako
irakaskuntza

%29,45

Enpresa

Lanbide Heziketan (LH)

Osasuna **%76**



Kimika **%59**



Tekniko Zientifiko arloan



Osasuna eta
Gizarte Zerbitzuak

%75,80

5.930

Emakume



Zientzia naturalak,
kimika, fisika eta
matematika

%48,80

2.158

Emakume



Mekanika, elektronika eta
bestelako prestakuntza
teknikoa; industria eta
eraikuntza

%29,30

3.922

Emakume



Informazioaren eta
komunikazioaren
teknologiak (IKT)

%17,40

370

Emakume